

Bixente Barandiaran

ORAIN IRUROGEI URTE

Orain irurogei urteko ikuskizunak berritzera natorkizue.

Ni Itsasondo'ko Urkia ballaran sortua nintzan. Erritik iru kilometrora gure baserria, eta beste lau baserri zeuden andik bi kilometrora. Lizardi zuten bere izena. Orain bi bakarrik daude zutik. Besteak ustu eta erori ziran, naiz penagarri izan. Gure gazte denboran lau baserrietan bizi ziran, ganadu-sail banarekin, nekearen bildurrik gabe danak.

Igandean, erriko eliza nagusian, goizeko zazpi ta erdietan lenengo meza zegoan, eta zein gelditu garai artan mezik gabe? Oso gaizki egon bearko zuan.

Igande-goizean irtengo ziran sasoiko danak lau etxeetatik, batez ere negu-partean eskuan artu ta su emanda, eta betse bat lagunak beso azpian zuala. Etxetik irten da berreun bat metrora biltzen ziran danak, argi batekin etortzeagatik.

Nere irakurleen artean egon litezke, lasto-bala zer dan ez dakitenak. Itaiarekin bi eskutada lasto ebaki, eta andik zortzi edo amar bat lasto artu eta erdia baiño beragotik lotu, eta ari deitzen genion lasto-bala. Garai artan nola ez zegoan gaur bezelako linterna-aukerik, al zan bezela ibili bear. Lasto-bala bi edo iru lekutan lotutzen zan, denbora geiago irauteko. Lasai utzita lenago erretzen zan.

Danak ez, baiña gizonaeko geienak, oin utsik etortzen ziran, eguraldi txarretan galtza-barrenak gora jaso eta abarka-mantarrak beso azpian artuta.

Eliza baiño lentxeago badago, Iturri Txikia deitzen geniona. An anak garbitu eta sekatu, eta abarka-mantarrak jantzi ta elizara. Zer goxotasun izango zan aien anketan, bost kilometro oin utsik pasatu ondoren?

Bear bada, egon liteke zuen artean mantarrak zer diran galdezka. Galtzerdiak bezela, anak biltzeko izaten ziran. Berrogei bat zentimetro bi aldeetara, gutxi gora-bera. Tela baiño lodiagoak, mantaren modukoak.

Abarkak ,berriz, ganadu-larruarekin eginak. Biguntzeko ematen zitzaien baiño bat. Oso gozo eta dotoreak gelditzen ziran. Baiña legorrik ibilli bear. Bustita bereala ondatzen ziran. Beraz, eguraldi txarrean oin utsik eginda meza entzun bear bagendu, zenbat meza entzungo ote genituzke urtean?

Nik zortzi urte nituan, gure etxetik gertu dagoan Santa Krutz ermitan meza jarri zuten. Orduan gure gurasoai etzegoan mezetara ez ginala joango esan besterik.

(Jarraitzeko.



Bixente Barandiaran.

R e s e ñ a — Un recorrido por las costumbres y modos de vida de la Gipuzkoa rural, que el autor ha recogido de sus recuerdos en el pueblo natal, Itsasondo del Valle de Urkia, antes de venir a vivir a Altza.